

Argi-kontuak



INMA ERREA
IDAZLEA

Hiru. Orain dela urte batzuk argindar-kontagailu analogikoa kendu eta digitala paratzeko agindu zigun Iberdrolak. Aldian-aldian langileak bidaltzen zituzten etxera aurretik abisatu gabe. Susmo txarra hartu genien interes eta tema ezohiko haiei: haiek, kontagailua aldatu behar zigutela, eta guk etxeko kontagailua ongi zebilela. Hilabeteak horrela –eta hamaika mezu-truke–, harik eta mehatxua iritsi arte: kargudun batek deitu zigun Bilbotik esanez argindarra etengo zigutela kontagailua aldatu ezean. Itzalaldi baten beldurrez, amore eman genuen.

Bi. Kooperatiba batekin dugu elektrizitate-kontratua: energia berdea kontsumitzeaz gain, faktura, merkeago (orain arte bederik...). Orain, gurea bezalako kooperatiba txikiak kapitala handitzera behartuko dituzte merkatuan jarraituko badute. Kooperatibarekin segituko dugu, ez dugu amore emanen (eskaintzak egiteko Iberdrolatik deitzen diguten bakoitzean kooperatiban jarraitzeko asmoa berresten dugu itzalaldi-mehatxu hura gogoan...).

Bat. Gauetik goizera prezioak orduka ordaintzera behartzen gaituztenetik, erlojuari begiratu behar etxetresna elektrikoak pizteko (etxeko beharrei lotu ordez). Zorabiatzen hasiak gara, eta zorabioaren erdian, galderak. Zer dela

eta ordutegien kontu hau? Prezioak orduka markatzeko sisteman, zer paper dute kontsumoak segundoz segundo neurtzen dituzten kontagailu digitalek? Noiz arte egingen diogu men ordutegien begiratzeari? Inork gogoratzen ditu zaborrak egun eta ordu jakin batzuetan atera behar izateak sortutako protestak? Inork ikusi ditu halakoak elektrizitate-ordutegien kontra?

Zero, huts. Beste itzalaldi baten mehatxua orain, erraldoia, mundiala. Eta albistea hauspotzeko, zer hobe defentsa-ministro bat baino? Zonbien inbasio baterako egokiak diruditen jarraibideak emanez, gainera: etxean gasezko su txikiak eduki behar zer gerta ere, eta kandelak, eta linternak, eta edateko ur nahiko, eta elikagai lehorrak eta kontserbakoak, eta dirua, eta... Atzerako kontaketa? Kapitalismoaren alderdi abenturazale eta apokaliptikoek sinesgarri bihurtzen dituzte iragarkizunak –Eduardo Galeanok esan bezala, beldurrezko zinemarekin inoiz ezin jakin–, baina lehen efektua, efektu nagusia, ezer gertatu gabe lortzen dute: beldur-hedatzaile erraldoiak dira (eta su-saltzaileak). Hala ere, badute gauza bat on: bertatik bertara erakusten digute noraino iristen den gure esklabotza guk geuk asmatutako aurrerabideekin. ●

Piromania



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Autoan noa eta ezin dut burutik kendu Oliver Laxeren *O que arde* pelikulako elkarrizketa bat: kartzelatik atera berria den piromanoa bere herrixkara bueltatua da, amaren etxera. Ama-semeak zuhaitzei begira daude, haritz gaixotuei, eta gaitza nola etorri zaien horretaz ari dira hizketan: kamioi batek ekarri omen zuen onddo hiltzailea. Haritzen gainetik eukaliptoak gailentzen dira. Sustrai sarriak dituzte, lurra pobretzen dute eta inguruko landarediari bizitzen eragotzi. Amak orduan sufritzen duenak sufriarazten

duela esaten du, eta ez dakizu eukalip-toei buruz ari den, edo bere semeari buruz. Eta egia da: jende askok gorroto ditu eukalptoak. Eta egia da: zaurituek egiten dituzte zauririk sakonena. Autoan noa eta Anariren *Piromania* kanta etorri zait burutara. “Zuk hainbeste zaintzen duzuna, eder eta egi izan dadin... Baina zuk ere nola basoa adina sua maite duzun...” Eta kasualitateak zer diren, edo kausalitateak, *O que arde*-ko piromanoa lanbidez basozaina da Galizian, eta jarraitzen duzuen poeta baten aita: Xela Arias. ●